



# ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO  
Tfona.: 943-313030 e-maila: [infogeldo@euskalerrria.org](mailto:infogeldo@euskalerrria.org)

## Gabon, gabon, igeldoarrak gabon ta berri on!

Abenduaren 24an GABON FESTA  
Gazte Lokalean  
goizeko 01:00etatik aurrera!!!

Elkarrizketa:  
Maider Ilarramendi  
eta Egoitz Etxebeste

Herri Kontseiluko gaiak eta gehiago!

# Kaixo herrikide!!!

Azkeneko Orri Informatiboan udazkena izan genuen hizketa gai eta urtaroaren aitzakian herrian ospatu behar genuen jaiaren berri eman genizuen. Oraingoan, berriz, negua dugu ate joka, baina atea ireki aurretik, udazkenari erreposoa egin behar! Hegohaizetik gutxi izan arren, festa ugari izan dugu herrian eta hauen nondik norakoak azalduko dizkizuegu.

**Udazkeneko Jaiari** dagokionez, orokorrean oso balorazio positiboa egin da. Jaiak bere baitan zuen helburua bete da. Ostiraletik hasi eta igandera bitartean, herri giro politta izan genuen. Adin guztietako herritarrak inguratu eta parte hartu zuten jaietan. **Argazki erakusketak** jende asko hurbildu zuen eta baita istorio ugari gogora ekarri ere. Zenbat kontu, zenbat oroimen, zenbat burukomin!



**Ostiraleko kaxuelitak** arrakastatsuak izan ziren. Behingoz, Gazte lokala adin ezberdinetako herritarrez gainezka egon zen.



Bestalde, **pilota partidek** ikusmin ederra sortu zuten. Hotzari aurre egiteko kafe eta kopak izan arren, batik bat, beteranoren joku biziak berotu zuen frontoia. Arrutiren jaurtiketa bortitzek, Ramontxoren azkartasunak, Goikoetxea anaien profesionaltasunak... Hor ibili ziren laurak dena eman beharrean. Hurrengo egunean izango ziren komeriak!

**Larunbateko bideo emanaldia** ere jendetsua izan zen, guk ordea zalantza bat daukagu: benetan bideo emanaldia ikustera gerturatu ziren denak ala ondorengo afari-meriendara? Izan ere, emanaldia amaitu bezain pronto ezin kabiturik ginen

Itsas Aurreko sukaldean. Guztiak elkarren lehian, zeinek mokadu hobe harapatuko!

Horrez gain, egunari amaiera emateko, bertsoak eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizunaz gozatu genuen. Ideia bitxi horrek herritar ugari erakarri zuen. Hala ere, guztiak ez ziren arrazoi beragatik gerturatu. Izan zen afariko betekada arintzeko lokuluxka egiteko aprobeixatu zuenik ere.

**Zaharren Eguna**, berriz, urtero bezala







arrakastatsua izan zen. Goizean goizetik giro bikaina sortu zen herrian.

Espero bezala, **azokak** izan zuen horretan eragin handiena. Herriko produktu ugari erosteko aukera izan zen, baina gehiagoren gogoz geratu zenik ere izan zen. Ea hurrengorako baserritar gehiago animatzen diren!

Ondorenean, bai **bazkarian** bai **errormerian**, ez zen alaitasunik falta izan.

Gainera, urtean behin izaten dugu **herriko taloak** jateko aukera, eta horri ezin ezetz esan! Gora emakume talogileak!

## Kontu kontari

### Amua nork jarriko zain

Herrian egin den azken festa Gazte Topaketa izan dela eta, Maider Ilarramendi eta Egoitz Etxebeste igel-doarrek harririk herriko gazteriaren egoera aztertzeko tartea hartu dugu. Biek ala biek, herriko gazte asanbladan egonik, ongi ezagutzen dute herrian ekintzak sortzeko eta horiek bizirik mantentzeko ematen dituen lanak nolakoak diren. Argi dago Igeldoko gazteok laguntzeko borondate handia dugula, baina dirudienez, gatz faltan gabiltza. Posible al da Igeldoko gazteriak hain inizatiba gutxi izatea?



**Oro har, nola ikusten duzue herriko gazteria?**

**M.I.:** Gazte mugimendua nahiko ahul dago. Azken urteetan ekintza ugari antolatu ditugu, inauteriak, gabonetan 24ko festa, urte zaharretakoa, nahiz eta iaiztik galtzeko bidean egon, eta baita Udazkeneko Jaia ere. Dena den, ekintza horiek oso zehatzak dira. Beti gauza berdinak egiten ditugu eta jai jakin horietara mugatzen gara. Orain esaterako, gabonetara begira gaude, gero inauterietan pentsatzen egongo gara... eta bitartean ezer ere ez.

**E.E.:** Ekintzei jarraipena eman behar diegu.

**Zein da mugimendua hain ahula izatearen arrazoiak?**

**E.E.:** Gehiengoari ez zaio bururatzen bere borondatez zerbait egitea. Mahaiaren gainean aukerak jartzten direnean, orduan bai, parte hartzen dute, baina

bestela... Ikusten da borondatea badagoela laguntzeko eta gauzak aurrera ateratzeko, baina hori da dena.

**M.I.:** Orain dela urte batzuk, esaterako, sexologia tailerra egin zen lokalean. Hori azkenean taldetxo baten ekimenez atera zen aurrera eta ikusi zen ez dela askorik behar zerbait antolatzeko eta jendea erakartzeko. Gogoia behar.

**E.E.:** Jendeak ondo pasa nahi du, baina ahalik eta inplikazio gutxienarekin. Koxka askotan hor egoten da. Denak amuaren zain egoten dira amu horri helptzeko. Amua behar da ordea.

**M.I.:** Beti betikoak mugitzea itxoiten da.

**Ekintza zehatzak badira ere, egiten dira. Gazte Topaketa izan da azkena. Nola sortu zen?**

**E.E.:** Ekimena orain dela hiru urte sortu zen.

Antigua eta Añorgako gazteen burutazio xeibre batetik atera zen. "La curva, la recta eta la cuesta"ren arteko festa bat antolatu behar zela pentsatu zuten.

**M.I.:** La curva Añorga da, la recta Antigua eta la cuesta Igeldo. Hortik abiatuta Antiguan egin zen lehenengo aldiz Gazte Topaketa eta bigarrenez, Añorgan. Gure asmoa, eurek egin bezala, jarraian egitea zen, baina urtebete pasa da antolatu dugun arte.

**E.E.:** Dexente atzeratu ginen eta jendeak ahaztuta zeukan jada. Jendeak zuen su hori itzali egin zen pixkat. Pena izan zen.

**M.I.:** Egia esan, iñauteriak antolatzen hasi ginen eta gero festa garaia bazetorrela eta, modu batean, zokoratu egin genuen gazte topaketarena.

**Kostata, baina egin zen azkenean. Zer moduz joan zen eguna?**

**E.E.:** Oso balorazio positiboa egiten dut. Jende asko gerturatu zen herrira. Kontuan hartuta berandu ibli ginela, bai antolatzen bai jendeari zabaltzen, ez gaude kexatzeko moduan. Gainera, harritzekoa bada ere, izugarritzko eguraldia egin zuen!

**M.I.:** Gure artean ere, herriko gazte ia guztiak hartu genuen parte. 16 urtetatik hasi eta 30 urtera bitartean. Inork ez zuen trabarik jarri lan egiteko. Ekintza honekin jarraitu beharko litzateke.



**Hori ere egun bateko kontua izan zen, baina lokalean ia ostiralero afariak eman dituzue.**

**M.I.:** Bai, egia da. Ekintza horri jarraipena eman zaio eta oso arrakastatsua izan da. Gainera, lokalean egoten ez zen jendea gerturatu da, eta afaltzera etortzeaz gain, lanean ere aritu dira. Honekin jarraitu



nahi dugu, baina ostiralero izan beharrean, egokia goa dela uste dugu hilabeteko ostiral jakin bat hartzea horretarako. Hala, beste ostiralak ekintza ezberdinak egiteko baliatu ditzakegu eta ez gara ohikerian eroriko.

**E.E.:** Afariena martxan mantentzeko bi arduradun behar direla pentsatu dugu eta bitartean, beste batzuk zerbait berria sortzen saiatu gaitezke. Ardurak banatzea izango litzateke. Gainera, txanden arazoa konponduko luke horrek. Afariak ematen betiko berdinak aritu arren, hilabetetik behin bakarrik izango litzateke.

**Ze ekintza egin eta nola antolatu erabakitzeko bilerak egiten dituzue. Gazte asko gerturatzen al da?**

**M.I.:** Argi dago lehen gehiago biltzen ginela. Dena dela, orain gutxiago izan arren, gazteenak ere gerturatzen hasi dira. Okerrena, Udazkeneko Jaia eta Gazte Topaketa prestatzen ari ginenean azaldu zirela lehenengoz, eta aginduak eta betebeharrak besterik ez genizkiela eman iruditzen zait. Ez dakit beldurtu ez ote diren egin... Dena dela, argi utzi nahi dugu lokala denona dela.

**Herriarena da, baina gazteek kudeatzen duzue. Nola iritsi zen gazteen eskuetara?**

**E.E.:** Elizak beregain hartua zeukan lokala eta hainbat urtetan hutsik egon zen. Apaiz berria heldu zenean, honek herriko gazteei ematea erabaki zuen. Herri Kontseiluarekin bilera egin zen eta lokala gazteek kudeatzea erabaki zen, baina herritar guztiei irekia izatea. Beraz, edonor joan daiteke bertara.

**Eta zer gertatzen da helduekin?**

**E.E.:** Helduei ez diegu aukerarik eman gerturatzeko. Ez dugu ezer egin eurentzat. Gainera zaila da heldu bat gazteen ingurura gerturatzea, normala da lekuz



kanpo sentitzea. Udazkeneko Jaian herri afaria antolatzen eta adin guztietako herritarrak bildu ginen bertan, baina adibide bakar bat besterik ez da.

**M.I.:** Asteburuetan bertan egon eta trago bat hartzeko aukerarik ez dago. Agian barra irekiko balitz, sozietate baten antzera, lana bukatu ostean jendea hurbilduko litzateke tragoren bat hartzera.

**Lokalarekin dirua ateratzen saiatzen zarete? Zeintzuk dira zuen helburuak?**

**E.E.:** Ez da inoiz gure helburuen artean egon dirua

ateratzea. Horrek ez du esan nahi horretara ere joan behar ez dugunik, izan ere, dirua beharrezkoa da gauzak antolatzeko. Hala ere, gure asmoa giroa sortzea eta lokalari bizia ematea da.

**M.I.:** Herriko aurreiritziak ere baztertu nahi ditugu eta lokalean ekintzaren bat edo beste egiten dela zabaldu. Agian, horrek huts egin digu. Ez dugu behar bezala zabaltzen jakin. Horrez gain, adin ezberdinetako gazteak bildu eta gure artean harremana sendotu nahi dugu. Eta ahal izanez gero, helduekin ere bai!

## Bota puntua

### ETORKINENTZAKO ZENTROA IGELDON. KEZKATZEKO ARRAZOIRIK BAI?

Dirudienez urtarrilan Diputazioak horrelako zentro bat ireki nahi du Bordako bidean, eta normala denez kezka azaldu dute ez bakarrik inguruan bizi direnak, baizik eta herritar askok. Eta ezagututa zentro honek Urnietan sortu zituen iskanbilak, salaketak, ... eta antzekoak, ez da batere harrizkekoa.

#### Argitu beharrekoak.

Nire iritziz hiru puntu hauek dira argitu behar direnak:

#### **1.- Igeldo al da kokapen egokiena?**

Pertsonalki onartzen dut horrelako zentroak beharrezkoak direla (eta gero eta gehiago egingo direla) eta beraz, Igeldon ere suertatu daitekeela. Leku aproposena al da? Etxe bakartua, auzokide gutxi, garraio publiko eskasa, ...

#### **2.- Zein neurri hartuko dira iskanbilak sahisteko?**

Alde batetik, arazoak ez sortzeko egin daitekeen gauza egokiena prebentzioa dela dirudi. Zentroak izango dituen ezaugarriak kontutan hartuta (umeek gehienoz 2 hilabete egingo dituzte bertan) zaila dirudi integrazio-planak egi-

tea, baina hauek planifikatu al dira? Beste aldetik, ondo zehaztuta al daude ume hauen ordutegiak, eginbeharrak eta gainontzeko nondik norakoak? Nolako zaintza izango dute?

#### **3.- Iskanbilak sortuz gero, zer egingo du Diputazioak?**

Espero dezagun arazorik ez sortzea, baina sortzen badira, nolako neurriak hartuko ditu Diputazioak?. Neurri pertsonalak (zigorrak, beste zentro batera lekualdatzea), eta neurri orokorrak (zentroa itxi edo beste zerbaitetarako erabili) aztertu al dira?

#### Eta zer egin daiteke?

Informazio guztia jaso, aztertu eta eztabaidatu eta gero bi aukera ditugu herrian:

- Zentroaren aurka agertu.

Argudioak pisukoak beharko dute, zaila ikusten baitut Diputazioak atzera egitea.

- Kokapenarena asumitu. Orduan lanerako ezinbesteko tresna jotzen dut zentroaren gora-beherak aztertu eta arazoak-soluzioak eztabaidatzeko balioko duen batzorde misto bat osatzea, non Diputazioa, Igeldoko Herri

Kontseilua, Udaltzaingoa eta laguntzaile sozialak ordezkatuak egongo diren. Batzordeak guztiz operatiboa izan beharko luke eta bere lehenengo zeregina dokumentu batean zein baldintzekin lan egingo den, lanaren sistematika zehaztu, arazo ezberdinak aurreikusi eta hauentzako soluzioak jasotzea izango litzateke.

#### Garai berriak

Garaiak aldatzen ari dira eta inmigrazioarena errealitate ukazina da. 1. eta 3. mundu arteko injustiziaren ondorio zuzena bezala ikusten dut nik. Inpresio pertsonala da oraindik inork ez dakiela oso ondo gauzak nola egin, urteak beharko direla inmigrazioa normaltasun osoz onartzeko. Bitartean herri askotan emango da gaur Igeldon ematen den bezelako eztabaida. Ez dezagun ahaztu pertsonetaz (umeetaz) hitz egiten ari garela. Nahiz eta jakin lana benetan zaila dela, nire apostua etorkinak guztiz integratzea izango litzateke, herritar euskaldunak bihurtuz. Nola demontre egiten da hau?

*Hegohaizea*

## HERRI KONTSEILUKO GAIAK

Herri Kontseiluko azken bileretan nabarmendu diren gaiak honako hauek izan dira: Borda bidean Diputazioak ireki nahi duen zentroa, Itsas Aurreko behe solairuko proiektua, kanposantua-Iturrieta bitarteko espaloia, Xatene pareko bidea, errekurtsioak, sindikatua eta etxeekin izan beharreko konpromisoa.

Dudarik gabe, garrantzia handiena izan duena **Diputazioak ireki nahi duen zentroa da**. Dagoeneko jakingo duzuen bezala, Diputazioak etxe bat erosi du Borda bidean, Etxe Nagusi inguruan. Zentroa adingabeko etorkinentzako izango da. Inguruko herritar batzuk Diputazioan izan dira eta informazioa bildu dute. Dirudenez, orain Urnietan dagoen zentroa ekarri nahi dute Igeldora. Zentroa gatazkatsua izan da eta beraien kezka azaltzen dute sortu daitezkeen iskanbilengatik. Informazio zuzena jasotzeko bilera egin zen Diputazioan Igeldoko Herri Kontseiluaren izenean. Hil honen 11n herri batzarra egin zen horren inguruan hitz egiteko.

**Itsas Aurreko beheko solairuko gaiari helduz**, soziedade antzeko proiektua martxan jartzeko asmoa azaldu da. Horretarako, soziedade antolatzeak erak aztertu beharko dira eta hori aurrera eramateko batzorde bat sortzea aurreikusten da. Hala ere, oinarritzko baldintza batzuk jarraitu beharko direla erabaki da. Baldintza horiek hauek dira: soziedadeak jabetza publikoa izan beharko du, herritar guztientzat irekia izango da, erabilera anitzekoa eta bertan egiten diren inber-

tsioek Igeldoko Herri Kontseiluaren (IHK) oniritzia eta aportazioa izango dute.

**Kanposantua-Iturrieta bitarteko espaloia**ren inguruan bertako jabe batzuekin bilera egin zen. Zati batean arazoak egon direla eta, udaletxeko teknikoak proiektu guztia zalantzan jarri zuen. Ondorioz, IHK bilera bat egin zuen Hirigintza saileko zuzendariarekin (Ortiz de Urbina). Iturrieta parekoa egin gabe ez dela ezer egingo erantzun zuen Ortiz de Urbinak. Azkenean, badirudi bi zatitan egiteko aukera egongo dela: batean, Akelarreko bidegurutzeraino, eta bigarrean, gainontzekoa.

**Xatene pareko bideari** dagokionez, azken aldian eman zaion erabilera dela eta, gogorazi nahi da oinezkoentzako edota trafikoko murrizteko bidea dela. Halere, oraingoz horrela uztea ongi ikusten da etxe berrietako mudantzenegatik. Gerora ordea, hasierako erabilera itzultzeko, ohartxo bat bidaliko zaie bertako bizilagunei.

**Errekurtsioei dagokionez**, udal txekak 10.000 euroko faktura pasa du, Maddiolako epaien kostuenegatik. Dena den, IHKak aurretik sinatu zuen Iñaki Atxukarrarekin gastu horiek ez zirela ordainduko (besteak beste, Elena Perezen epaien gastuak barkatzea erabaki zelako). Horregatik, bilera eskatu zaio Atxukarrori, baina ez du erantzun. Bestalde, abokatuak ere faktura pasa du. Diru kontutaz hitz egiteko eta errekurtsioak nola dauden aztertzeke, bilera egingo da.

**Sindikatuaren** inguruko gaiekin hasteko, aipatu Sustapenekoekin (Fomento) bilera egin zela eta beste bat egiteko asmoa dagoela. Bestalde, *auzolanean* lan batzuk egitea premiazkoa ikusten da, batez ere ura sartzen ari delako sindikatuan. Soliboren bat puskatuta dago eta arriskuan ikusten da etxea. Auzolanek izango lituzkeen alde onak ere azpimarratzen dira. Etxea konpontzeaz gain, herrian talde lana eta herri sentimendua berpiztuko lituzke eta administrazioari presio egiteko balioko luke, besteak beste.

**Etxeetako kooperatiba** desegin egingo da jabeek eskriturak sinatzean. Hori dela eta, etxe horiek gero ere igeldoarrentzat izateko, herriak nolabaiteko konpromisoa hartu beharko lukeela uste du IHKk. Hau da, baten batek, aurrerago, bere etxea saltzen badu, erosterakoan igeldoarrok lehentasuna izatea. Hori nola egin daitezkeen galdetzekotan dira.

**Gurasoen Elkartekoei** dagozkien gaiei helduz, Ludotekara sartzeko giltzak behar dituztela eta, kopiak ematea erabaki da. Ludotekakoa zein sarrera nagusikoa.

Garbiketa ere izan da hizketa gai. Garbitzailerik ez dagoenez, Ludotekan ez ezik, Kultur Etxe guztian sortzen den arazoa da. Udaletxean horren inguruan hitz egiteko (eta etxearen kudeaketaz) bilera egiteko asmoa dago. Bitartean, erabiltzen dutenek garbitzea pentsatu da. Beste formula batzuk ere aipatu dira: elkarte eta talde guztiek, txandakatuz, hori egiteko ardura hartzea, auzolan



moduan garbiketa orokorra egitea,... baina ez da ezer zehaztu.

Soziedadeko giltza ere eskatu dute arratsaldeetan bertan egon ahal izateko eta kopia emango zaie. Dena dela, gune horretarako proiektu berria dago mahai gainean eta proiektua gauzatzen denean, ziurrenik, Udaletxe zaharreko jangela izango da ordezeko lekua. Horrez gain, herri barruko bidez

jardun dute. Bidean sakanguneak (badenes) jartzea eskatu zuten Udaletxean eta oraindik ez dituztenez jarri, proiektu bat egin dute bertan aurkezteko. IHKri pasako diote, eta egokia dela erabakitzen bada, beraiek aurkeztuko dute Udaletxean.

Ikastolan egiten ari diren hezkuntza proiektua ere izan dute ahotan. IHK eztabaida horretan egotea

interesgarria izan daitekeela pentsatzen dute. Batez ere, herri ikuspegia aztertzeke. Hurrengo bilerrako IHKari deitezketan geratu dira eta orain arte egindakoaren kopia pasako dute. Beraiek dagoeneko ordezkari egokiak izan daitezkeenak aipatu dituzte.

Bestalde, motorrekin parkineko espaloitik gora ez ibiltzea eskatu dute.

## Herri txikien independentzi oihua Bolibarren

Joan den azaroaren 30ean, Itsas Aurreko zenbait kide izan ziren Bolibarren. Bertakoek segregazioaren hirugarren urteurrena ospatzen zutela eta, oraindik lortzeko duten zenbait herrien aldarria bildu nahi izan zuten. Igeldokoez gain, Itziar, Usansolo eta Aretakoak bertaratu ziren eta bakoitzak bere egungo egoera zertan den azaltzeaz aparte, segregazio prozesuaren nondik norakoak azaldu zituen. Gainera, Bolibarrek independentzia lortu zuenetik ona izan duen garapena ikusteko aukera ederra izan zen, baita gainontzeko herrietakoak ezagutu eta aurrerantzean harremana mantentzeko kontaktuak

egiteko ere.



## Irakurleen txokoa

Atal honetan zure ekarpenak bildu nahi ditugu. Berdin du zer idazten duzun, kexak, ipuinak, poesiak, errezetak, txisteak... Helburua herritarron parte hartzea bultzatzea da. Anonimoa izan daiteke, goitizena jartzea besterik ez duzu. Animatu eta idatzi!!!

### Hilerriko loreen lapurretak

Orain dela gutxira arte, Aian kobrea lapurtzea modan jarri zen. Igeldon berriz, hilerriko loreak lapurtzen dituzte. Haiek sikiera dirua lortzen zuten, hilerriko loreekin, ordea, zer egin daiteke? Jendea gero eta okerrago dago.

Lorea Flores

### Udazkena

Udazkena anka punttetan jun zaigu.  
Muntozabaleko zelayak gozatzeko, Arriola bideko perretxikuk gozatzeko, Amuaitz gañian usuak ikusteko, Ameztiko pikuk ontzeko... hegoaizeik batez!  
Itsasua berriz, zakar, lanpernazulo ta arlastak harrotuz. Igeldoar batzuk'e, zue orbeletan eaman dituzu. Udazken Jaia behintzat eguzkiyakin epeldu zenigun ta jai earra ospatu genuen.  
Añorga, Antiguu ta Igeldoko Gazte Jaiai're harrera ona ein zenion.  
Igeldoar asko herriko etxe berritan sartzen ikusi dituzu. Diputaziyuak Borda bidian eositako etxian berri're izandu deu.  
Udazkenak ikusi gaitu ziudadeko estresak irentsita denbora urria (dirua) dela sinetsita, Kamiyoko obratan semaforuan erlojuai beira... Udazkena bea're baijua o denboak eamateu?  
Bueltatuko haiz orbelez beteta, bitartian neguai emayok aurtengo testigantza Txalin atzeko zerua grizez josi dezan!

Urdin

# Gabonak 07-08

Kixmi aisialdi taldearen egitaraua

## Gabon eskeko ensaioak:

Abenduaren 15ean eta 22an, arratsaldeko 16:30etan Itsas Aurrean.

## Gabon eskea:

Abenduaren 24an eta 31n. Irteera 14:30etan plazan.

## Gabonetako tailerrak:

Abenduaren 20an eta urtarrilaren 3an, arratsaldeko 16:30etatik 18:30etara. Ludotekan izango dira.

## Eskeko merienda eta afaria:

Urtarrilaren 5ean. Merienda arratsaldeko 17:30etan Itsa Aurrean eta afaria (15urtetik gorakoentzat) 20:00etan plazan.

# OLENTZEROREN ETORRERA!!!

Abenduaren 24an, gabon eskea amaitzean (19:30ak aldera).  
Nahi duenak olentzerori aurrez aurre eskutitzak emateko aukera izango du.



Igeldoko  
Herri  
Kontseilua

Laguntzailea:

